




# BERTSO BERRIYAK ORIYO'KO BALIARI JARRIYAK

Doinua: Orioko balearena

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

Testuaren iturria:

Antonio Zavala. 1979. Arrantzaleen bizitza. Auspoa. 103 or.



Orbegozo  
(Orio, Gipuzkoa)

1901. urtean Orion (Gipuzkoan) balea harrapatu zuten; Euskal Herrian harrapatuko zen azkena izango zen. Gertaeraren testigantza bertsotan jaso zuen Orioko herritar batek, Orbegozok (apaiza zen Zumaian). Kantua ezagun egin da Benito Lertxundien ahotsean, 1977an "Zuberoa / Askatasunaren semei" disko bikoitzean argitaratuz geroztik.

- 1 Mila bederatziehun ta lehenengo **urtean** maiatzaren hamalau garren **egunean** Orioko herriko barraren **aurrean** balea agertu zan beatzik **aldean**.
- 2 Handia bazan ere azkarra **ibilian** bueltaka\* han zebilen joan da **etorrian** hondarra harrotuaz murgil **igerian** zorriak zeuzkan eta haiek bota **nahian**.
- 3 Ikusi zutenean hala **zebilela** berehala joan ziran traineruan **bila** arpoi ta dinamitak eta soka **pila** agudo\* ekartzeko ez zan jende **hila**.
- 4 Bost traineru joan ziran patroi **banarekin** jende bizkor bikain ta guztiz **onarekin**: Manuel Olaizola eta **Loidirekin** Uranga, Atxaga ta **Manterolarekin**.



**builtaka** = itzulika

**agudo** = laster, fite





Malen Amenabar

5 Baleak egindako salto ta **marruak**\* ziran izugarri ta **ikartzekuak** atzera eragin gabe hango **arriskuak** arpoiakin hil zuten han ziran **hanguak!**

6 Bost txalupa jiran da erdian **balia** gizonak egin zuten bai nahiko **pelia**\* ikusi zutenean hila edo **itoa** lehorretikan bazan biba ta **txaloa**.

7 Hamabi metro luze gerria hamar **lodi** buztan pala lau zabal alboetan **pala bi** ezpainetan bizarrak beste **ilera**\* **bi** orraziak bezela hain zeuzkan **ederki**.

8 Gorputzez zan mila ta berrehun **arrua**\* beste berrehun mingain ta tripa **barrua** gutxi janez ez zegon batere **galdua** tinako\* sei pezetan izan zan **saldua**.

9 Gertatua jarri det egiaren **alde** hau horrela ez bada jendeari **galde** bihotzez pozturikan atsegintsu **gaude** biba oriotarrak esan beldur **gabe**.



*marruak* = oihuak  
*pelia* = borroka  
*ilera* = lerro, sail

*arrua* = garaiko neurri izena, pixu eta edukierarena  
*tina* = ontzi handia

